



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

**2012ko MAIATZAREN 24an EGINDAKO
OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

Olaberrian, 2012ko maiatzaren 24an, 18:33ak izanik Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira Alkatea, Jokin Garmendia Asurabarrena, Jose Manuel Garrido Fernandez, Amaia Cuellar González, Jose Antonio Barandiaran Estala, Jose Bernardo Aldasoro Insausti eta Gema Echaniz Badiola, zinegotziak.

Iñigo Sarasola Aranzasti zinegotziak ez egotea zuritu du.

Bertan dago eta fede ematen du Idoia Arebalo Benito Idazkari Kontuhartzaileak.

Osoko Bilkura legez osatzeko beharrezkoa den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztatu ondoren, gai zerrendako lehenengo puntua aztertzeari ekiten dio Udalbatzak.

AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONARPENA.

Alkateak, onartzeko dauden Akten berri ematen du:

- 2012ko martxoaren 20ko Ohiko Batzarraren Akta.

Akta bozkatzen da, aho-batez onartzen

**ACTA DEL PLENO ORDINARIO
CELEBRADO EL 24 DE MAYO DE 2012.**

En Olaberria, a 24 de mayo de 2012, siendo las 18:33 horas se han reunido en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el Alcalde Jokin Garmendia Asurabarrena, los concejales Jose Manuel Garrido Fernandez, Amaia Cuellar González, Joseba Barandiaran Estala, Jose Bernardo Aldasoro Insausti, y Gema Etxaniz Badiola.

El concejal Iñigo Sarasola Aranzasti ha excusado su ausencia.

Asiste y da fe del acto la Secretaria-Interventora Idoia Arebalo Benito.

Comprobado que asiste el número suficiente de concejales para la válida constitución de la Sesión Plenaria, el Alcalde declara abierta la sesión pasándose a examinar el primer asunto del Orden del Día.

APROBACIÓN DE LAS ACTAS DE LA SESIONES ANTERIORES.

El Alcalde informa de las actas que se traen para su aprobación:

- Acta del Pleno ordinario de 20 de marzo de 2012.

Se procede a la votación y se aprueba el acta



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

delarik aipatu zuzenketarekin.

Azken honek dio akta horretan honako aipamen hau ez dela jaso: alkateak, HJE 1.7 etxebizitzaren gaiaren inguruan, aurreikusten diren 6 etxebizitzak lehen aurreikusten ziren 12 etxebizitzek zituzten kosto berdinerara aterako zirela aipatu zuen.

Idazkariak dio grabaketa erreparatu ondoren, aipamen hori egin zela egiaztatzekotan, dagokion aktan txertatuko duela.

ALKATETZAKO GAIAK

ALKATETZA-EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Alkate jaunak dio joan zen batzorde informatzaileetan aurreko Osoko Bilkuratik aurrera emandako Alkatetza-Ebazpenen inguruko azalpena eman zela, 89/2012tik 110/2012-ra bitartean.

Udal kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

Bilduko zinegotzia den Gema Etxaniz andreak zehaztasun hau egiten du: ados daude baina udalerraren zarata maparen erantzunaren berri ematea eskatzen dute.

UDALARENAK DIREN BIKARIO-ETXEKO GARAJEAK: ETXEBIZITZEN JABEEN PROPOSAMENA.

Joan zen batzorde informatzailean gaiaren berri eman zitzaion udal-kideei.

con el voto en contra del concejal del grupo OHE Jose Bernardo Aldasoro.

Este último señala que no se ha recogido, con respecto al tema relativo de las viviendas de la UAU 1.7, que el alcalde afirmó que las seis viviendas que se preveían ejecutar iban a tener el mismo costo que las doce previstas inicialmente.

La secretaria repasará la grabación y lo insertará en el acta correspondiente en el caso en el que se haya realizado dicha afirmación.

TEMAS DE ALCALDIA

DAR CUENTA DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA.

El señor Alcalde informa de que se dio cuenta en las pasadas comisiones informativas de los Decretos de Alcaldía adoptados a partir del último Pleno Ordinario, es decir, del 89/2012 al 110/2012.

Los Corporativos quedan al corriente.

La concejal de Bildu Gema Etxaniz puntualiza lo siguiente: se muestran de acuerdo, sin embargo solicitan que se les informe a cerca del resultado del mapa del ruido del municipio.

GARAJES MUNICIPALES DE BIKARIO ETXE: PROPUESTA DE LOS PROPIETARIOS DE LAS VIVIENDAS.

En la pasada comisión informativa se dio cuenta del tema a los corporativos.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

Bikario Etxeko zenbait biztanlek udalarenak diren garajeen erosketa proposamena aurkeztu dute Udaletxean.

Udal arkitektoak garaje hauen inguruko balorazio txostena egin du, udalkideen artean banatu delarik, lizitazio publikora ateratzeko xedearekin.

Gaia bozkatzen da, aho-batez onartzen delarik.

UDAL KALE IZENDEGIAREN EGUNERAKETA.

Joan zen batzorde informatzailean gaiaren berri eman zitzaizen udal-kideei.

Kale izendegiaren eguneraketa proposatzen da orain dagoena erregularizatzeko zein orain izapidetzen ari den udal Planeamendu Orokorrek ekarriko dituen aldaketei egokitzeko xedearekin.

Helburu horretarako, udal aparejadoreak udal-kide bakoitzari banatu zaion proposamen bat landu du.

Gaia bozkatzen da, udal-kideek aho batez erabakitzen dutelarik udal kale izendegiaren eguneraketarekin aurrera egitea. Berau, hiru hilabetetan zehar jendaurrean egongo da nahi duenak egoki deritzon alegazioak aurkeztu ditzan.

Bilduko zinegotzia den Gema Etxaniz andreak zehaztasun hau egiten du: lanketa hau egiteko garaian Bilduko zinegotziok partaido izan nahiko genuke, zuen erantzunaren zain gelditzen gara.

ERROLDATZEKO ZENBAIT IRIZPIDEEN

Varios vecinos de Bikario Etxe han hecho una propuesta de compra de los garajes municipales existentes en el edificio.

El arquitecto municipal ha emitido un informe de valoración de los mismos, el cual ha sido transmitido a los corporativos con el objeto de sacarlos a licitación pública.

Se procede a la votación quedando la propuesta aprobada por unanimidad.

ACTUALIZACION DEL CALLEJERO MUNICIPAL.

En la pasada comisión informativa se dio cuenta del tema a los corporativos.

Se propone la actualización del callejero municipal con el fin de regularizar el callejero existente adaptándolo, a su vez, a los cambios que traerá la modificación del Planeamiento General municipal que se está llevando a cabo.

Para tal fin, la aparejadora municipal ha realizado una propuesta, que se ha repartido entre los concejales.

Se procede a la votación acordando los corporativos por unanimidad el inicio del procedimiento para la actualización del callejero municipal, el cual se expondrá al público durante un período de tres meses para que quien así lo quiera pueda presentar las alegaciones que considere oportunas.

La concejal de Bildu Gema Etxaniz puntualiza lo siguiente: solicita que para trabajar sobre el tema tomen parte los concejales de Bildu. Quedan a la espera de respuesta.

ESTABLECIMIENTO DE UNA SERIE DE



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

FINKATZEA.

Joan zen batzorde informatzailean gaiaren berri eman zitzaien udal-kideei.

Erroldatze irizpide hauen onarpena proposatzen da:

1. Pertsona oroentzat:

- Nortasun Agiriaren kopia. Atzerritarren kasuan berau ordezkatzeko duen agiriaren kopia.
- Famili liburuaren kopia, guraso edota legezko ordezkariekin erroldatu behar den adinez txikikoen kasuan, hauek ez dutenean NA egiteko obligaziorik.

2. Erroldatu nahi den etxebizitzaren jabeentzat.

- Erroldatu nahi den etxebizitzaren salerosketa eskrituraren kopia, zeinean erroldatu nahi duen pertsona jabe bezala agertu beharko den.

3. Erroldatu nahi den etxebizitzaren maizterrentzat.

- Arau orokor bezala, maizterrak bere izera egiaztatuko du izaera horrekin agertzen den alokairu kontratuaren kopiarekin.
- Pertsona interesdunak, alokairu kontratuan maizter bezala agertzen ez den kasuetarako, honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu: etxebizitzaren jabearen idatzizko baimena; erroldatu nahi den

CRITERIOS DE EMPADRONAMIENTO.

En la pasada comisión informativa se dio cuenta del tema a los corporativos.

Se propone el establecimiento de los siguientes criterios de empadronamiento:

1. A toda persona:

- Copia del Documento Nacional de Identidad o tratándose de extranjeros el documento que lo sustituya.
- Copia del libro de familia en el caso de hijos menores de edad que no tengan obligación de tener el DNI y que se empadronen junto con su/s progenitor/es o representante/s legal/es.

2. A los propietarios de la vivienda donde se quieren empadronar.

- Copia de las escrituras de compraventa de la vivienda donde la persona a empadronar figure como propietaria.

3. A los arrendatarios de la vivienda en la que se quieren empadronar.

- Como norma general, el arrendatario acreditará el carácter de tal, con la copia del contrato de arrendamiento de la vivienda en el que él figure como arrendatario.
- En el caso en el que la persona interesada no figure en el contrato de arrendamiento como arrendatario, deberá aportar la siguiente documentación: consentimiento por escrito del propietario de la vivienda;



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

etxebizitzaren salerosketa eskrituren kopia zeinean jabea nor den zehazten den; etxebizitzaren jabearen NA-ren kopia.

copia de las escrituras de la vivienda en la que se pretende empadronar donde conste la identidad del propietario de la vivienda; copia del DNI del propietario de la vivienda.

Gaia bozkatzen da, aho-batez onartzen delarik.

Se procede a la votación quedando la propuesta aprobada por unanimidad.

BASERRIETAN SANEAMENDUAREN INSTALAKUNTZARAKO EMATEN DIREN DIRU-LAGUNTZEN INGURUAN IRIZPIDEEN ALDAKETA.

MODIFICACION DE CRITERIOS EN RELACION A LAS SUBVENCIONES PARA LA INSTALACION DE SANEAMIENTO EN LOS CASERIOS.

Joan zen batzorde informatzailean gaiaren berri eman zitzaion udal-kideei.

En la pasada comisión informativa se dio cuenta del tema a los corporativos.

Orain arte, saneamendurik ez duten baserrietan berau eramatea diruz lagundu du, beti ere baserria ohiko etxebizitza bezala erabiltzen bazuen eskatzaileak.

Hasta el momento el Ayuntamiento subvenciona el saneamiento a los caseríos que carecen de él siempre y cuando se utilice el caserío como vivienda habitual del solicitante.

Halere, orain zera proposatzen da: saneamendurik ez duten baserrietara hau eramatea udalak diruz laguntzea nahiz eta eskatzailea bertan ez bizi.

Sin embargo, mediante esta propuesta se propone que la subvención se amplíe a los caseríos que no tengan saneamiento, independientemente de que constituyan residencia habitual o no del solicitante.

Gaia bozkatzen da gehiengo absolutuz onartzen delarik, Bildu taldekoa den Gema Etxaniz zinegotziaren kontrako botoarekin.

Se procede a la votación aprobándose por mayoría absoluta con el voto en contra de la concejal del grupo Bildu Gema Etxaniz.

Azken honek aipamen hau egiten du: momentu hontan hamar baserrietatik bederatzik saneamendua pasatuta dutelarik ez dute ulertzen zertara datorren aldaketa.

Esta última manifiesta lo siguiente: no entienden la razón de esta propuesta cuando en este momento de diez caseríos nueve tienen pasado el saneamiento.

Alkateak arrazoiak azaltzen dizkio.

El alcalde le expone las razones.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

AZPIEGITURA ETA HIRIGINTZA

ASFALTADO DEL VIAL DE IHURRE ZAHARRA.

Alkateak dioen bezala, gaia udal kideei azaldu zitzaien aurreko batzorde informatzailean.

Udaletxeko arkupetatik Ihurre Zaharreko eraikin berrira doan bidea asfaltatzeko obra kontratu txikia, Asfaltos Urretxu enpresari esleitu zaio.

Udal kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

OGASUNA ETA UDAL ZERBITZU TEKNIKOAK

3.000 EUROTIK GORAKO FAKTUREN ONARPENEA.

Joan zen batzorde informatzailean faktura bakoitzaren berri eman zitzaien udal-kideei.

Fakturak bozkatzan dira gehiengo absolutuz onartzen direlarik, Bildu taldeko zinegotzia den Gema Etxaniz zinegotziaren abstentzioarekin.

Azken honek, 1.500 eurotik gorako fakturen onarpena Batzarrera eramatea proposatzen du.

INFRAESTRUCTURA Y URBANISMO

ASFALTADO DEL VIAL DE IHURRE ZAHARRA.

El alcalde expone que ya explicó el asunto a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Se ha adjudicado el contrato menor de obras del asfaltado del vial que va desde los arcos del Ayuntamiento hasta el nuevo edificio de Ihurre Zahar, a la empresa Asfaltos Urretxu.

Los corporativos quedan al corriente.

HACIENDA Y SERVICIOS TÉCNICOS MUNICIPALES

APROBACIÓN DE LAS FACTURAS SUPERIORES A 3.000 EUROS.

Se dio cuenta de cada factura a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Se procede a votar las facturas que son aprobadas por mayoría absoluta con la abstención de la concejal de Bildu Gema Etxaniz.

Esta última propone que se traigan a aprobación las facturas de más de 1.500 euros.

DIRUZAINZAREN

EGOERA.

SITUACIÓN

DE

TESORERÍA.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

INFORMAZIOA.

Udal - kideei 2012ko maiatzaren 3ari dagokion diruzaintzaren egoera aurkeztu zitzaizen joan zen batzorde informatzailean.

Udalak, kutxan, banketxe ezberdinetako kontuetan eta epe laburrera eginiko inbertsioen artean, guztira, 950.768,35 euro ditu.

Udal kideak jakinaren berri gelditzen dira.

UDAL ZORREN ORDAINKETA ATZERATU ETA ZATIKATZEARI BURUZKO ORDENANTZA.

Joan zen batzorde informatzailean gaiaren berri eman zitzaizen udal-kideei, une honetan bere behin behineko onarpena ekartzen den ordenantzaren zirriborroa azalduz.

Proposamena bozkatzeko da, ahobatez onartzen delarik.

Ordenantzaren testua jendaurrean jarriko da 30 eguneko epean zehar, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean zenbatzen hasiko delarik, nahi duenak egoki iruditzen zaiona alegatu ahal izateko.

Epe hau igaro ondoren ez bada alegazio edo reparorik aurkeztu, ordenantza behin betiko izaerarekin onartuta kontsideratuko da bestelako akordio espresurik hartu behar izan gabe.

INFORMACIÓN.

Se presenta a los corporativos en la pasada comisión informativa la situación de tesorería a fecha 3 de mayo de 2012.

El Ayuntamiento posee entre la caja, las cuentas en las distintas entidades y las inversiones a corto plazo, un total de 950.768,35 euros.

Los Corporativos quedan al corriente.

ORDENANZA DE APLAZAMIENTOS O FRACCIONAMIENTOS DE PAGO DE DEUDAS DE CARACTER MUNICIPAL.

Se dio cuenta del tema a los corporativos en la pasada comisión informativa, presentándoles un borrador de ordenanza que en este momento se trae para su aprobación inicial.

Se somete la propuesta a votación y se aprueba por unanimidad.

El texto de la ordenanza se expondrá al publico por un período de 30 días a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para que quien así lo considere, pueda alegar lo que estime oportuno.

Si una vez transcurrido ese período no se ha presentado alegación o reparo, la ordenanza se considerará definitivamente aprobada sin necesidad de adopción de nuevo acuerdo.



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

**AISIALDI ETA LUDOTEKARAKO
ZAINZAILIEN LAN-POLTSA BATEN
ERAKETA.**

Alkateak dioen bezala, gaia udal kideei azaldu zitzairen aurreko batzorde informatzailean.

Ludoteka kudeatzen zuen enpresaren kontratua bukatu ondoren eta beste enpresa batekin akordio batetara ezin izan denez heldu, zerbitzu hau aurrera eramateko aukera hoberena lan poltsa bat eratzearena dela erabaki da.

Ondorioz, honako hau proposatzen da:

1.- Lan poltsaren eraketa eraendu behar dituzten oinarrien onarpena.

2.- Prozeduraren hasiera erabaki, dagokion deialden onarpenarekin batera.

Gaia bozkatzeko da, aho – batez onartzen delarik.

GALDERA ETA ERREGUAK

**Gema Etxaniz andreak (BILDU)
aurkeztutako galdera eta erreguak**

- EKOS enpresak egindako ingurumenaren gaineko eraginaren inguruko azterlana.

Kopia bat ematea eskatzen du.

Alkateak zera erantzuten dio: azterlana oraindik ez dute Udaletxean aurkeztu, dena den, hurrengo planeamenduzko

**CREACION DE UNA BOLSA DE TRABAJO
PARA MONITOR DE LUDOTECA Y
TIEMPO LIBRE .**

El alcalde expone que ya explicó el asunto a los corporativos en la pasada comisión informativa.

Ante la finalización del contrato de la empresa que gestionaba la ludoteca y la falta de acuerdo con otra empresa, se ha decidido que la mejor opción es la creación de una bolsa de trabajo municipal para llevar a cabo ese servicio.

Consecuentemente, se propone lo siguiente:

1.- Aprobación de las bases que han de regir el procedimiento de elaboración de la bolsa de trabajo.

2.- Acordar el inicio de procedimiento aprobando la correspondiente convocatoria.

Se somete el tema a votación quedando aprobado por unanimidad.

RUEGOS Y PREGUNTAS

**Ruegos y preguntas formuladas por
Gema Etxaniz (BILDU)**

- Estudio de impacto ambiental realizado por la empresa EKOS.

Solicita se les facilite una copia.

El Alcalde responde que todavía no lo han presentado al Ayuntamiento, y que se les ha citado para que en la siguiente comisión de



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

batzordera deituak izan direla txostena azaltzeko helburuarekin.

- Ihurreko eskola zaharrentzako proposamena: (hitzez-hitz)

“ Ihurreko eskola zaharra egoera duin batean daudenez irtenbide bat proposatzen dugu gai honi, aurrekontuan diru partida bat bideratzea eskola zaharrei buruzko proiektu bat gauzatzeko, bertan sei edo hamabi etxebizitza osatzeko eta herrik jendeari alkiler merkean eskeintzeko”.

Alkateak dio eraikin hori izapidetzen ari en Planeamendu Orokorraren berrikuspenaren esparruan ordenatuko dela, egoki iruditzen zaien ekarpenak bertan egin ditzaketelarik.

OHE-ko zinegotzia den Jose Bernardo Aldasorok aurkeztutako galdera eta erreguak

- Hezkuntza delegaritzarekin hitz egin al den galdetzen du.

Alkateak, udalak udalerriko beharrak asetzeko nahikoa izango den telekomunikabide sare baten ezarreraren inguruan eman dituen eta ematen ari dituen pausoen berri ematen du.

- HJE 1.7 etxebizitzaren exekuzioarekin batera planteatuta dagoen ibilbide bikoitzaren egoeraren inguruan galdetzen du.

Alkateak, aurki gai hori tratatzeko ez-ohiko batzar bat egingo dela erantzuten dio

planeamiento acudan a exponer el estudio.

- Propuesta para las antiguas escuelas de Ihurre. (Intervención literal)

El alcalde interviene diciendo que dicho edificio se ordenará en el marco de la revisión el Planeamiento General que se está llevando a cabo, pudiendo hacer las aportaciones que consideren necesarias.

Ruegos y preguntas formuladas por el concejal de OHE Jose Bernardo Aldasoro

- Informa de que en mayo ha salido en el Boletín una subvención para mejorar las infraestructuras, telecomunicaciones, etc. Pregunta a cerca si se ha tenido en cuenta.

El alcalde le responde ampliamente a cerca de las intenciones y los pasos que se han llevado a cabo y que se están llevando a cabo para que el municipio disponga de una red de telecomunicaciones suficiente para poder abarcar las necesidades existentes.

- Pregunta a cerca del vial de doble sentido previsto junto con la ejecución de las viviendas tasadas en la UEU 1.7.

El alcalde responde que se va a llevar a cabo un pleno extraordinario donde se



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

hurrengo batzorde informatzailean jakinaraziko delarik.

Bertaratutako en galdera eta erreguak

Aitor Urkiola jaunak honako galdera hauek botatzen ditu:

- Bikario etxe aldamenean, 1.7 HJU-n egingo diren etxebizitza tasatuen inguruko galderak egiten dit, alkateak zalantza guztiak argitzen dizkiolarik.
- Bikario etxeke udal garajeen lizitazio prezioari buruz galdetzen du. Idazkariak datu horiek ematen dizkio.
- AAC Acustica y Lumínica enpresak udalerriko zarata azterlanaren kopia ematea eskatzen du.
- Udal erroldaren eguneraketaren inguruko bozketaren emaitzaren inguruan galdetzen du, idazkariak ahobatez onartu zela erantzuten diolarik.
- Nuclenor-ek udaletxera Arcelorren gertatutako isuri kutxakorraren inguruko txostena igorri duen galdetzen du, alkateak, nahiz eta behin eta berriz eskatu oraindik bidali ez dutela diolarik.
- Planeamenduaren esparruan egindako galdeketa popularra:

llevará ese tema, por lo que se dará debida cuenta en la correspondiente comisión informativa.

Ruegos y preguntas formuladas por el público asistente

El sr. Aitor Urkiola relaliza los siguientes ruegos y preguntas:

- Pregunta a cerca de las viviendas tasadas que se van a ejecutar en la UAU 1.7 al lado del edificio de Bikario Etxe, a lo que el alcalde responde a todas las cuestiones que éste le plantea.
- Pregunta a cerca de los precios de licitación de los garajes municipales de Bikario Etxe. La secretaria le facilita ese dato.
- Solicita que se facilite copia del estudio de ruido del municipio que ha realizado la empresa AAC Acústica y Lumínica.
- Pregunta a cerca del resultado de la votacion de la regularización del padrón municipal, a lo que la secretaria le responde que se aprobó por unanimidad.
- Pregunta a cerca de si ha llegado al Ayuntamiento el informe de Nuclenor, en relación al vertido tóxico ocurrido en Arcelor, a lo que el alcalde responde que aunque reiteradamente se ha solicitado, no ha llegado aún.
- Cuestionario popular realizado en el marco del Planeamiento: plantea una



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

zenbait kritika egiten ditu: emaitzak ez dira kontrastatu web orrian argitaratu baino lehen; erdara hutsean dago galdeketa; galdera motak berak halako erantzunak behartzen dituzte. Alkateak planteatutakoa argitzen dio.

- Zaborren gaien inguruan ondoko planteamenduak egiten ditu batik bat: Sasieta udalak duen ordezkariak planteamendu batekin joatea, horretarako udal talde guztiak bildu eta aurten bertan plangintza bat eratzea proposatzen du eta azkenik, Olaberria bezalako udalerrri batentzat autokonposteia aukera egokiena dela pentsatzen du.
- Olaberriko eskolen inguruan hezkuntza ordezkariarekin bilera egin zen ala ez galdetzen du. Alkateak baiezkoa dio, eta eskoletarako eraikin berria egiteko konpromesua aurrera dijoala baina aurrekontu falta dela eta, proiektua aurreragorako utzi beharko dela.
- Abiadura handiko trenaren lanetatik eratorriko lurrekin egin den betelanaren inguruan zera eskatzen du: Udalak Eusko Jaurlaritzako teknikariekin harremanetan jartzea, betelanaren inguruan gelditzen diren zalantza eta kuestio guztiak argitzeko balio izango duen bilera batera deitzeko.
- Bengoetxe – Handi baserri inguruan gorotz- hodian egondako

serie de críticas: no se han contrastado los resultados y su lectura con anterioridad a su publicación en la página web; está únicamente en castellano; el planteamiento de las preguntas fuerzan el tipo de respuesta. El alcalde procede a responder todas sus cuestiones.

- Realiza, sobre todo, los siguientes planteamientos a cerca del tema de los residuos: que la delegación que tiene el Ayuntamiento en Sasieta acuda con un planteamiento; para eso, propone que este mismo año se reúnan todos los grupos municipales para elaborar una planificación al respecto y por último, considera que Olaberria es un lugar ideal para el autocompostaje.
- Pregunta a cerca de si se celebró la reunión con la delegación de educación a cerca de las escuelas de Olaberria. El alcalde le responde que si, que el compromiso sigue vigente pero que debido a la cuestión económica/presupuestaria, se tendrá que aplazar el proyecto.
- Relleno de los excedentes de las obras del tren de alta velocidad: pide que el Ayuntamiento se ponga en contacto con el técnico de Gobierno Vasco para exigirle una reunión donde se aclaren todas las dudas y las cuestiones que todavía quedan pendientes.
- Avería de la tubería de fecales en las inmediaciones del caserío Bengoetxe



OLABERRIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA
(GIPUZKOA)

aberia: arriskutsua iruditzen zaio konponketarako egin den zuloa, segurtasun neurriak konpliarazi beharko lirateke. Honi erantzunez alkateak, aberiaren xehetasunak azaltzeaz gain, udal aparejadora hasieratik egon dela obra honen gainean jakinarazten dio.

–Handi: le parece peligroso el socavón realizado para su reparación, solicita que exija el cumplimiento de las correspondientes medidas de seguridad. Ante esto el alcalde, además de explicarle los pormenores de la avería, le responde que la aparejadora municipal ha estado continuamente pendiente de esta obra.

Eta aztertzeke beste gairik egon gabe, Alkate jaunak bukatutzat ematen du bilkura arratsaldeko zazpi terdiak direnean, eta nik, Udalbatzako Idazkariak, adierazitako guztiaren Akta egiten dut.

Y sin más asuntos por tratar, el Sr. Alcalde da por terminada la sesión cuando son las diecinueve y treinta horas, y yo, Secretaria de la Corporación, expido el Acta de todo lo manifestado.

ALKATEA / EL ALCALDE

IDAZKARIA / LA SECRETARIA